

Korronte postpositibisten desafioa eta gaurko *langarren eztabaida*

6.1. Eztabaida interparadigmatikoa agortuta

1.7 atalean esan dugunez, diziplinaren bilakaera azaltzeko, normalean esan izan da hainbat eztabaida teoriko izan direla hurrenez hurren. Ildo horretan, *hirugarren eztabaida* aipatu ohi da, lehen aipaturako hiru korronte arrazionalisten artean izandakoa: 70eko hamarkadan errealismoaren eta globalismoaren (liberalismoaren) artean eta 80ko hamarkadan horien eta estrukturalismoaren artean izan zena. Eztabaida interparadigmatikoa esaten zaio, korronte bakoitza *paradigma* bat dela jotzen baita, hau da, munduari (arazo, parte-hartzaile, harreman, eta abarri) buruzko azalpen koherente eta sistematiko bat, mundua aztertzeko bere oinarri teorikoak dituen, eta baita bere azpiko balioak ere. Hala, neurri handi batean, espazio teoriko itxiak izan ziren, ikertzeko agenda bereziak eta berezko mintzaira izan zituzten, eta horrek zaildu egin zuen ideiak aurrez aurre paratzeko aukera.

**Hirugarren eztabaidako hiru paradigmaren ezaugarriak
(70ekoak eta 80koak)**

Paradigmak	Premisak		
	Munduaren ikuskera	Funtsezko parte-hartzaileak	Diziplinaren objektua
Paradigma estatuzentrikoa [errealista]	Sistema anarkikoa	Estatua	Gerraren arrazoiak
Paradigma globalista [liberala]	Mundu mailako gizartea	Aktore asko	Bakea, ekologia, gainpopulazioa, baliabide globalak
Paradigma estrukturalista	Erdigune-periferia sistema	Klase sozialak	Esplotazioaren arrazoiak

Iturria: SODUPE, Kepa (2003), *La teoría de las Relaciones Internacionales a comienzos del siglo XXI*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 36. or.

Ikusi dugunez, paradigma errealistak izaera estatuzentrikoa du, estatuak baitira nazioarteko sistemako parte-hartzaile ia bakarrak, eta sistema anarkikoa eta bortiztzat hartzen baita. Hala, bada, nazioarteko harremanak beren segurtasuna bermatzeko botere politiko eta militarra lortu nahi duten estatuen arteko harremanak dira, eta, beraz, goi-mailako politika da aztergaia. Sustrai liberaleko paradigma globalistaren edo transnazionalistaren ustez, hainbat parte-hartzaile daude, estatuez gain, eta haien arteko harremanetan gero eta handiagoak dira interdependentzia eta lankidetzak. Horrela, mundu mailako gizartea eratzen ari da, eta, beraz, ezinbestekoa da behe-mailako politikako hainbat gai aztertzea (gai ekonomikoak, ingurumenekoak, giza eskubideak, etab.). Bestetik, sustrai marxista duen paradigma estrukturalistaren ardatza mundu mailako sistema ekonomiko kapitalistaren egitura eta sistema horren periferiaren eta erdigunearen arteko mendekotasun eta esplotazioko harremanak aztertzea da; eta, ondorioz, gehiago interesatzen zaio indar ekonomikoak jorratzea, estatuen eta beste-lako parte-hartzaileen indar ekonomikoak baino.

Bistan denez, hiru paradigma horietako bakoitzak pisu desberdina izan du diziplinan. Errealismoa korrante nagusia izan zen Bigarren Mundu Gerra bukatu zenetik. Globalismoa liberalismoaren aldaera berria izan zen, gerra amaituta isilik geratu ondoren berriz azaldu baitzen bestelako mundu-ikuskerak bat eskaintzeko, errealismoarena ez zena, baina errealismoarekin batera diziplinako mainstream bilakatuta. Bestetik, estrukturalismoak oinarri erradikaletatik jartzen zituen zalantzan aurreko bi paradigmak, eta, beraz, eragin txikia izan zuen diziplinan.

80ko hamarkadaren bukaerarako, eta askoz nabariago Gerra Hotzaren amaieraz geroztik, diziplina hiru paradigmatan banatzen zituen sailkapen hori eztabaidan jarri zen, eta *paradigma* kontzeptua bera ez zen gehiago erabili. Alde batetik, paradigma bakoitza nazioarteko errealitateko alderdi batzuetan ardazten zenez, eta beste batzuk alboratzen edo ahazten zituenez, haietako batek ere ez zuen lortzen gero eta konplexuagoa zen nazioarteko errealitateari buruzko behar bezalako azalpenik ematea. Bestetik, zenbait joera postpositibista agertu ondoren, diziplinaren mapa teorikoa askoz ere konplexuago bilakatu zen, ikuskera berriak eskaini eta aurrez zeuden korronteei aurre egin zietelako. Izan ere, ikuspegi postpositibistak desberdinak dira haien artean, baina denek jartzen dute zalantzan errealismoak, liberalismoak eta estrukturalismoak batera duten oinarria: arrazoian eta metodo zientifikoan duten fedea, errealitatea modu objektiboan ezagutzeko bide egokitzat jotzea.

6.2. *Laugarren eztabaida*

1980ko hamarkadan, zenbait joera teoriko sortu ziren NHetan, *joera postpositibista* izenekoak (*erreflektibista* ere bai). Korronte horiek guztiek eztabaidan jartzen zituzten aurrez zeuden joeren epistemologia positibista eta arrazionalismoa. Korronte horiek agertzean *laugarren eztabaida* izenekoak sortu da diziplinan, konfrontazio teoriko bizia piztu duena hainbat mailatan:

- a) Batez ere lehen aipatutako korronte arrazionalisten eta postpositibisten arteko talka nabarmentzen da, azkenek aurrekoen ortodoxia positibista zalantzan jartzen dutelako. Ikusiko dugunez, eztabaidak eduki ontologiko eta epistemologiko sakona ditu.
- b) Korronte postpositibisten arteko eztabaidak. Diziplinan nagusi den positibismoa arbuiatu arren, jarrera desberdinak dituzte, adibidez, jakintza zientifikoa eraikitzeke aukeraren eta gizartea eraldatzeko helburuaren aurrean.
- c) Diziplinaren *mainstreama* eratzen duten bi korronte arrazionalisten arteko eztabaida, neorealismoaren eta neoliberalismoaren artekoa. 80ko hamarkadan hasi zen, eta elkarrizketa, jarrerak malgutzera eta elkarrekiko hurbilketa izan ditu ezaugarri.
- d) Bi korronteren ekarpenak, hain zuzen, konstruktibismoarenak eta Eskola Ingelesarenak (lehen izan dugu hizpide), korronte arrazionalisten eta postpositibisten jarrerak hurbildu daitezzen lortu nahi baitute.

Hala, bada, gehienbat arrazionalismo-postpositibismoaren arteko konfrontazioari dagokionez, *laugarren eztabaida* sakonagoa eta sofisti-

katuagoa da, diziplinan aurrez izandako eztabaidekin erkatuta. Ez da eztabaida filosofiko-normatibo bat bakarrik, *lehen eztabaidaren* moduan; ezta eztabaida metodologiko bat ere, *bigarren eztabaidaren* gisan; edo eztabaida ontologiko bat, *hirugarren eztabaida* edo eztabaida paradigmaticoa bezalakoa. *Laugarren eztabaidak* hortik harantz jotzen du: eztabaida ontologikoa da, erabat jartzen baitu zalantzan diziplinaren aztergaia bera; baina, aldi berean, karga epistemologiko handiko eztabaida da, jakintzaren iturriez eta jakintzaren izaera zientifikoez egiten baitute eztabaida. Azken batean, izaera filosofiko eta metateoriko sakoneko eztabaida dugu.

Joera postpositibista horien sorrera 80ko hamarkadan eta 90eko hamarkadaren hasieran bi motako aldaketa larriek bultzatu zuten: mundu osoan izan ziren aldaketa politiko sakonak eta ondoriozko nazioarteko sistemaren krisia, eta gizarte-zientzien teoriaren aldaketak, NHen diziplina ere gogorki astindu zutenak.

Lehenik, garrantzi historiko handiko bi aldaketa nabarmendu behar dira, hain zuzen, Gerra Hotzaren bat-bateko amaiera eta horrek sorrazitako globalizazio-prozesuaren goraldia. Aldaketa horiek argi frogatu zutenek, zenbait hamarkadatan indarrean egondako nazioarteko egiturak ez ziren aldaezinak. Diziplinan nagusi ziren teoriak, aurkakotasun bipolarreko garaian eratutakoak, ahul agertu ziren nazioarteko sisteman izandako aldaketak behar bezala azaltzeko. Horrela, ez zuten gaitasunik izan Gerra Hotzaren amaiera eta, herritarren artean izandako legitimitate-krisiaren ondorioz, Europako Ekialdeko erregimen sozialisten porrota azaltzeko. Izan ere, prozesu horien bultzagile ez ziren superpotentzien arteko botere-harremanak izan, baizik eta ideien esparruan sortutako aldaketak, eta joera tradizionalak ezikusia egiten zieten horiei. Aitzitik, garai hartan azaltzen ari ziren korronte postpositibista batzuen arabera (berreziki, konstruktibismoaren arabera), aldaketa horiek argi frogatzen zuten haien ikuspegia, hau da, nazioarteko errealitatea ez dela aldaezina, eta sozialki eraikita dagoela parte-hartzaile sozialek alda ditzaketen ideien eta arauen gainean.

Azken batean, 90eko hamarkadaren hasieran, nabarmena zen diziplinak zuen disfuntzioa edo ezintasuna errealitate berriak egoki azaltzeko, erabiltzen zituen kontzeptu eta modelo teorikoak neurri handi batean iraganekoa zen sistema bat aztertzeko landu zirelako¹²⁴. Munduaren aldaketek diziplinaren oinarri teorikoak birplanteatzea eskatzen zuten, eta hori, berez, pizgarria izan zen korronte postpositibista berrientzat.

¹²⁴ ARENAL, Celestino del (1993), «El nuevo escenario mundial y la teoría de las Relaciones Internacionales», in Hainbat egile, *Hacia un nuevo orden internacional y europeo. Homenaje al Profesor M. Díez de Velasco*, Madril, Tecnos, 94. or.

Bigarrenik, korronte postpositibistak sortu ziren diziplinan bertan eta gizarte- zientzietan, oro har, egon zen bilakaera teorikoaren ondorioz. NHetan izandako bilakaerari dagokionez, agertu ziren korronte berriek jarraipena eman zioten 70eko eta 80ko hamarkadetan izandako eztabaida interparadigmatikoak pluralismo teoriko eta metodologikorantz abiatzeko hasitako joerari, areago sakonduz eta erradikalizatuz. Izan ere, hiru paradigma zeudela onartzeak aurre egiten zion *zientziaren batasunari* (positibismoaren postulatuetak bati), eta prozesu bat jarri zuen abian diziplinaren pluralismo teoriko eta metodologikoa, eta erlatibismoa eta subjektibitatea handiagotzeko. Gizarte-zientzien bilakaerari dagokionez, eztabaida-prozesu sakona izan zen, batez ere 80ko hamarkadatik aurrera, eta postulatu teoriko positibistak zalantzan jarri ziren, Modernitatearen oinarriak eta Ilustrazioaren proiektua krisian sartu zirelako: ahots batzuek ohartarazi zuten, haien oinarrietako bik —arrazionaltasunak eta aurrerapenak— kalte eta arrisku larriak egiten zizkioten gizateriari, bai eta horren autosuntsiketaren arriskua ere.

80ko hamarkadaren amaieratik eta 90eko hamarkadaren hasieratik aurrera, eraldaketa intelektualak eta historikoak bat egitean, korronte arrazionalista nagusiekin kritikoak ziren ikuspegi postpositibistek goraldia izan zuten, kuantitatiboki eta kualitatiboki. Horrela sortu zen NHetako *laugarren eztabaida*. Asaldura teoriko bizia piztu zuen, aurreko eztabaidak baino handiagoa, eta eztabaida sakonak sortu zituen, garrantzi ontologiko, epistemologiko eta metodologiko handikoak. Garai hartan, ohiz kanpoko sormen intelektualak eta pluralismo teoriko eta metodologiko handia izan ziren, eta lehenago sekula ikusi gabeko mugetaraino zabaldu zen eztabaida teorikoa. Horren ondorioz, diziplinaren tradizio eta oinarriak berak jarri ziren zalantzan (lehenago hausnarketa urria eginga baitzen horretaz), eta joera nagusiek baztertuta zituzten arazoei eta ikuspegiei buruzko eztabaida piztu zen. Azken batean, NHetan bira postpositibista (*postpositivist turn*) edo iraultza postpositibista gertatu dela esaten da, eta horrek nola-halako sentimendua eragin duela diziplinan, hori zatikatu egin dela eta bere iraganarekin hautsi dela.

Ikusten dugunez, gaur egun egiten diren ahalegin askok oso metateorikoak eta filosofikoak diren eztabaidak dituzte ardatz, diziplina bera hausnargai duten eta diziplinaren oinarriak zalantzan jartzen dituzten eztabaidak. Era askotako erreakzioak izan dira horren aurrean. Batzuek errezeloa edo susmoa dute, gure diziplinaren oinarriak leherraraziko dituen erlatibismo teorikoan erortzeko arriskua dagoelako; eta, orobat, introspekzio teoriko horretan ardaztuz gero, beharbada, ez delako behar adina ahalegin egingo nazioarteko gizarteak dituen arazo zehatzak aztertzeko. Beste batzuek, berriz, pozez hartu dute autokritika, hautsi egiten dituelako diziplinak gaurdaino izan dituen muga estuak, eta zabaldu egiten dituelako zentzu guztietan hausnarketaren ertzak.

6.3. Korrante postpositibisten ezaugarri orokorrak

Desberdintasun ugari daude joera postpositibisten artean: sustrai intelektual desberdinetatik datoz, eta oinarri ontologiko eta epistemologiko desberdinak dituzte. Hala ere, ezaugarri komun bat dute denek, eta hortik dator haien izena: uko egiten diote (erradikaltasun handiagoz edo txikiagoz) diziplinaren sorreratik nagusi izan den positibismoari. Hortaz, labur bada ere, ezinbestez azaldu behar dugu zer den positibismoa.

Positibismoa XIX. mendearen hasieran formulatu zuten zenbait pentsalarik (Henri de Saint-Simon, Auguste Comte, John Stuart Mill eta beste batzuek), XVIII. mendeko Ilustrazioko arrazionalismoa abiaburutzat hartuta. Arrazionalismoaren ustez, arrazoiaren bidez, gizateriak errealitateaz jabetu, ezjakintasuna gainditu, eta aurrerapena eta askatasuna lor zitzakeen. Oinarri horietatik abiatuta, positibismoa izena duen pentsamendu filosofikoak metodo zientifikoaren bidez ezagutu nahi du errealitatea; metodo hori lehenik esparru naturalerako formulatu zen, baina, gero, esparru sozialean ere aplikatu zen. Hona hemen positibismoaren oinarrizko postulatuak:

- a) Errealitate objektibo bat dago, hala esparru naturalean nola sozialean, eta horrek dituen erregulartasunak teoriak formulatuz ezagutu eta azal ditzakegu. Egitateak eta balioak desberdintzen dira, eta horrek esan nahi du egitate horiek objektiboak direla, eta, beraz, neutralak ere badirela, balioekin alderatuta.
- b) Metodo zientifikoa da errealitatea ezagutzeko eta azaltzeko modua, eta metodologia enpirista du oinarrian, hau da, egitate horien azterketa objektiboa eta hipotesiak egiaztatzea edo gezurtatzea, egitate horiek azaltzeko lege orokorrak —balio unibertsalekoak eta nola edo hala aldaezinekoak— formulatu ahal izateko. Epistemologia enpirista horri emandako garrantziaren ondorioz, egiaztatu edo faltsuztatu ahal diren (sarritan, metodo kuantitatiboak erabiliz) gertaeren azalpenak baizik ez dira zientifikotzat hartzen, eta, beraz, gertaera horiek baizik ez dute errealitatea eratzen, eta jakintza sortzeko moduko gauza mota zehazten dute horrela.
- c) Metodo zientifiko horrek baizik ezin du zientzia eratu, eta natura-zientziei edo gizarte-zientziei aplikatu dakieke, zientziaren unitatea dagoelako.
- d) Metodo zientifikoari esker, ikertzailearen lana neutrala da, ikertzailearen balioek, emozioek edo lehentasunek ez baitute lan hori baldintzatzen. Era horretan, *teoria positiboa* era daiteke, *teoria normatiboaz* (balio jakin batzuk oinarrian dituenaz) erabat bestelakoa dena.

Azken batean, positibismoaren arabera, errealitate objektibo bat dugu begien aurrean (gure kasuan, nazioarteko errealitate bat), eta hori aztertzeko eta azaltzeko era bakarra natura-zientzien ondoriozko metodo zien-

tifikoa da, horrek bide ematen baitu balio unibertsal eta iraunkorreko teoria neutralak eta objektiboak sortzeko.

Dena dela, positibismoa gero eta kritika gehiago jasotzen hasi zen, batez ere 80ko hamarkadatik aurrera¹²⁵, zenbait arrazoi zirela-eta haren metodo zientifikoa gertaera sozialetan ezin aplikatu zitekeela uste zelako. Lehenik, ez da egia ikertzailea neutrala denik; aitzitik, ikertzaileak egiten duen azterketak haren sinesmenen, balioen, pertzepzioen, mintzairaren eta bestelako alderdien eragina du neurri batean. Hortaz, teoria *positibo*en eta *normatibo*en arteko ustezko bereizketa ez da egiazkoa. Bigarrenik, gertaera sozialak ez dira naturako gertaerak bezain erregularrak eta aurreikusgarriak, eta, beraz, ezin dira azaldu zehaztasun- eta ziurtasun-maila berberaz. Hirugarrenik, azken batean, arlo sozialean ezin da teoria unibertsal eta iraunkorrik eraiki, errealitatea objektiboki azaltzeko eta, gainera, etorkizunari begira ere aurreikusi ahal izateko. Hala ere, horri dagokionez, erradikalismo-maila desberdinak daude positibismoaren kontrako ikuspegietan. Batzuek —adibidez, Teoria Kritikoak— uste dute jakintza zientifikoa sor daitekeela, baina hori kontingentea edo erlatiboa dela, hau da, testuinguru historiko, geografiko edo kultural bakoitzean berrikusi eta aplikatu behar dela. Haien aurrez aurre, postestrukturalismoak ezeztatu egiten du errealitatea era objektiboan ezagutzeko gaitasuna dugunik, bai eta gure gogotik kanpoko errealitate objektiboaren existentzia bera ere. Izan ere, postestrukturalismoaren ustez, pertsona bakoitzak dituen pertzepzio subjektiboak baizik ez daude, eta, beraz, ukatzen du gertaera sozialak azaltzeko jakintza zientifikoa sortzeko aukera.

Gizarte-zientzietan eta NHeetan nagusi zen positibismoari uko egin ondoren, hainbat korrante postpositibista edo erreflektibista azaldu dira. Diziplinan *mainstream* edo nagusi ziren korronteei aurre egitean, garrantzi teoriko handiko kritikak eta proposamenak egin dituzte, izaera ontologiko, epistemologiko eta metodologikokoak. Esate baterako, diziplinan oinarritutakoak diren kontzeptu batzuk eztabaidan jarri dituzte (segurtasuna, subiranotasuna, boterea, etab.), aztergai berriak ekarri dituzte (adibidez, genero-harremanen edo kulturaren eragina), nazioarteko parte-hartzaile berriengan jarri dute arreta (pertsonengan, nork bere identitatearekin; botereak eta ahotsik ez duten sektoreak, etab.), lehentasuna eman diote alde ideazional eta diskurtsiboak aztertzeari, alde materialen aurretik jarrita, eta metodologia berriak erabili dituzte ikertzeko (hizkuntzaren dekonstrukzioa, metodo etnografikoak, etab.).

Korrante postpositibistek desberdintasun handiak dituzte haien artean, tradizio intelektual eta oinarri teoriko desberdinen emaitza direlako;

¹²⁵ Hala ere, kritika horiek badituzte aurrekariak, esate baterako, XIX. mendearen bigarren erdian Friedrich Nietzsche filosofoak Modernitateari eta arrazoiari egin zizkienak.

eta, gainera, haietako bakoitzaren barruan, ahots eta ikuskera ugari daude. Dena dela, positibismoaren kontra egoteaz gain, neurri batean partekatzen dituzten ezaugarri komun batzuk (ñabardura eta salbuespen askorekin, hala ere) aipa daitezke; hain zuzen, hauek:

- a) Faktore ideazionalak eratzen dute errealitatea sozialki (ideiek, arauak, diskurtsoak, eta abarrek), akordio normatiboen arabera, hau da, eskuarki onartzen diren eta instituzioek eta lege-esparruek gauzatzen eta, adibidez, hedabideek erreproduzitzen dituzten ideien arabera. Sinesmen hori konstruktibismoari dagokio (horregatik du izen hori), baina, oro har, joera postpositibista gehienek ere badute. Horrek hainbat ondorio ditu:
- Joera horiek arreta handiz aztertzen dituzte faktore soziokognitiboak, ideologikoak eta diskurtsiboak (sinesmenak, arauak, identitateak, pertzepzioak, etab.), eta arreta txikiagoz faktore materialak¹²⁶.
 - Haien ustez, errealitatea ez da estatikoa, finkoa eta objektiboa; aitzitik, nazioarteko errealitateari buruzko ikuskera desberdinak daude. Hainbat hamarkadatan diziplinan nagusi izan den korrante errealistak «errealitatea» islatuko balu bezala aurkezten du bere burua, baina, azken batean, lerratuta eta partziala den mundu-irudi zehatz bat du oinarrian, Mendebaldeko akademikoek testuinguru jakin batean garatu zutena. Izan ere, mundu-ikuskera desberdinak daude, eta, beraz, modu desberdina daude haien ondoriozko gai asko ulertzeko (segurtasuna, estatuaren papera, parte-hartzaileen arteko harremanak, etab.).
 - Gugandik kanpo dagoen eta objektiboki azal litekeen errealitatearen existentzia eza interpretatzean, desberdintasun epistemologiko sakonak azaltzen dira joera postpositibistetan. Erradikalenean —postmodernistek edo postestrukturalistek— jarrera erlatibista hartzen dute; horren arabera, interpretazio guztiak baliagarriak izan daitezke, eta, beraz, ez dago fundazio edo oinarriko irizpiderik formulazio teoriko desberdinak bereizteko eta, horrela, jakintza zientifikoa eraikitzeke. Era horretan, diziplina bera diziplina zientifikoa gisa *desegitea* iradokitzen dute. Beste ikuspegi batzuek, adibidez, Teoria Kritikoak, *gutxieneko fundazionalismoa* babesten dute, hau da, oinarri arrazional batzuk daudela, eta horien bidez jakintza zientifikoa sor daite-

¹²⁶ Hala ere, aurrerago ikusiko dugunez, izaera neomarxista duen Teoria Kritikoak izenekoak garrantzi handia ematen die faktore ekonomikoari, ideiekin eta instituzioekin lotuta daudela uste duelako.

keela. Beraz, ez dute diziplina desegin nahi; aitzitik, oinarri berrien ginetik *berreraiki* nahi dute.

— Faktore soziokognitiboak berez eraldatzeko modukoak direnez, *aldaketa* historikoa funtsezko dimentsioa da azterketa postes-trukturalistetan.

- b) Ondorioz, haien ustez, teoria eta jakintza lagungarriak dira errealitatea eraikitzeko, eta horrek ondorio sozial eta politiko ugari ditu. Natura-zientzietan, teoriak *esplikatzaileak* baizik ez dira, baina, gizarte-zientzietan, teoriak *eratzzaileak* ere badira; hau da, errealitatea esplikatzeaz gain, nahita edo nahigabe, moldatu eta eratu egiten dute. Bestela esanda, laguntza ematen dute aztertzen duten mundua eratzeko¹²⁷, «gizakiak ekiteko eta esku hartzeko dauden aukerak zein diren esaten digute», eta «gure aukera etikoak eta praktikoak» zehazten dituzte¹²⁸, jakintza guztiak ideologikoak baitira, gizarteko talde bereziek dituzten balioen, ideien eta interesen isla¹²⁹.
- c) Aurrekoaren ondorioz, haien iritziz, erlazioa dago jakintzaren eta boterearen (politiko, ekonomiko, intelektual, etab.) artean, eta grinaz ikertu nahi dute. Jakintza ez da neutrala, eta, gainera, nagusi den jakintza (definizioak, ikuskerak, teoriak) egituraren eta botere-harreman nagusien arabera da (Iparra/Hegoa, gizarte-mailak, generokoak, etab.). Ikuspegi postpositibistek arretaz ikusi dute diziplinan teoria jakin batzuk nagusitu direla eta beste batzuk bazter utzi direla, gobernuak edo boterearen beste esparru batzuek emandako laguntzari esker¹³⁰. Hala, *ikasketa estrategikoe*k (eta SESBekiko arma-lehiaketak baldintzatuta segurtasunari buruz zuten ikusmoldeak) lotura estua izan zuten 60ko hamarkadako konplexu militar industrialarekin. Era berean, 60ko hamarkadan eta 70eko hamarkadaren hasieran, errealismoa izan zen ideologia nagusia Estatu Batuetako gobernarien artean. 80ko hamarkadatik aurrera, nazioarteko ekonomiaren politikek ideologia neoliberalak izan dute

¹²⁷ BATTISTELLA, Dario (2009), *Théories des relations internationales*, Fondation Nationale des Sciences Politiques, Paris, 296. or.

¹²⁸ SMITH, Steve (1995), «The Self-Image of a Discipline: A Genealogy of International Relations Theory», in Ken BOOTH and Steve SMITH (arg.), *International Relations Theory Today*, Polity Press, Cambridge (Erresuma Batua), 13. or.

¹²⁹ STEANS, Jill eta Lloyd PETTIFORD (2001), *International Relations. Perspectives and Themes*, Longman, Harlow (Erresuma Batua), 105. or.

¹³⁰ Aurrekari gisa, 60ko hamarkadan, egile erradikal batzuek —adibidez, Noam Chomsky— NHen akademiaren eta AEBko gobernuaren artean zuden lotura estuak aztertzen zituzten.

oinarrian, eta, horren ondorioz, nazioarteko merkatuak desarautu egin dira¹³¹.

Ildo horretan kritikatzeko errealismoak —diziplinako korrante nagusi gisa— sortu dituen ideia hegemonikoak baliagarriak izan direla AEBk eta beste potentzia batzuek munduan darabiltzaten botere- eta mendekotasun-harremani eusteko. Errealismoa itxuraz objektiboa eta unibertuala dela ematen badu ere, mundu-ikuskeraren etnozentrikoa, Mendebaldekoa, elitista (estatuzentrikoa eta goitik beherakoa), maskulinoa eta kontserbadorrea du bere barruan¹³². Nagusi diren korronteak «boteretsuaren diskurtso» bilakatu dira¹³³, eta, ondorioz, NHen diziplina potentzia handien zerbitzura dago¹³⁴.

Era berean, diziplinako *mainstream*ak diskurtso kritikoak edo disidenteak baztertzeko zeregina bete du; bere irizpideak ezarri ditu ikuspegi edo azterketa bat legitimotzat jo dadin lortzeko¹³⁵.

- d) Oro har, ikuspegi postpositibistek gizartea eraldatzea dute xede. Jakintzaren eta boterearen artean dagoen harremanaz oharturik, ez dira mugatzen *statu quo*aren esparruan dauden arazoak konpontzera (*problem-solving*); aitzitik, errotik kritikatzeko dituzte esparru hori eta haren botere-harremanak (herrialde, klase, genero eta bestelako artekoak). Bestela esanda, dagoen ordena kritikatzeko dute, haren alderdi guztiak: egiturak, estatuak, nazioarteko erakundeak, nazioarteko zuzenbidea; eta lehen diziplinan ia agertzen ez ziren alderdiak ere bai, esate baterako, balioak, esku-

¹³¹ BURCHILL, Scott, Andrew LINKLATER, Richard DEVETAK *et al.* (2005), *Theories of International...*, *op. cit.*, 14. or.

¹³² Ikus BOOTH, Ken (2005), «Critical Explorations», in BOOTH, Ken (arg.), *Critical Security Studies and World Politics*, Lynne Renner, Boulder (AEB), 9. or.; eta, orobat, ABRAHAMSEN, Rita (2007), «Postcolonialism», in GRIFFITHS, Martin (arg.), *International Relations Theory for the Twenty-First Century. An Introduction*, Routledge, Londres, 111. or.

¹³³ ABRAHAMSEN, Rita (2007), «Postcolonialism», in GRIFFITHS, Martin (arg.), *International Relations...*, *op. cit.*, 112. or.

¹³⁴ COX, Robert (1986), «Social Forces, States and World Orders. Beyond International Relations Theory», in KEOHANE, Robert, *Neorealism and its Critics*, Columbia University Press, New York, 204.-254. or.

¹³⁵ Esate baterako, egile marxista batzuek nabarmendu dutenez, Lehen Mundu Gerraren arrazoiak ikertzerakoan, errealismoak eta liberalismoak mugak jarri zituzten, bidezko azterketatzat zein har zitezkeen erabakitzeke. Era horretan, diziplinak bazterrean utzi zituen klaseen arteko borrokan, potentzia kolonialen arteko lehia ekonomikoan edo inperialismoaren teoriar ardaztuta zeuden azalpenak, horiek gerraren arrazoiak sistema kapitalistaren izaeran bertan zeudela aditzera ematen zutelako. Ikus BURCHILL, Scott, Andrew LINKLATER, Richard DEVETAK *et al.* (2005), *Theories of International...*, *op. cit.*, 14. or.

bideak eta identitatea. Aitzitik, maiz, pertsonak hartzen dituzte ardatz, bereziki, pertsona edo komunitate ahulak, gizarte-mugimenduak, etab.

Ildo horretan, korrante horiek ikuspegi normatiboa dute oro har; gizartea eraldatzea dute xede, maila desberdinak eta ñabardurak egon arren. Hala, Teoria Kritikoaren ustez, ikertzaileak erabat engaiatu behar du ekintza politikoan, *emantzipazioa* lortzeko. Aitzitik, estrukturalismoak, normalean, kritika zorrotzak egiten ditu, baina proposamen alternatiborik eman gabe.

Haien eduki kritiko eta eraldatzailearen ondorioz, eta teorikoki oso garatuta egon arren, orain ere ikuspegi postpositibistek bazterrean jarraitzen dute diziplinaren barruan, eta ahalmen gutxi dute agenda politikoetan eragina izateko.

6.4. NHen egungo mapa teorikoa

Goian ikusi dugun eta azken hamarkadetan izan den bilakaeraren ondorioz, gaur egun lehen baino askoz ere zailagoa da mapa bat marraztea, diziplinak dituen korrante teorikoak sailkatzeko: korrante gehiago dago, eta batzuk definitzea zaila da; gainera, eztabaidek tonu metateoriko gogorra hartu dute.

Zailtasun hori gorabehera, hainbat saiakera egin dira sailkapena egiteko, eta, normalean, joera horiek ontologian (errealitatearen izaerari buruzko ikuspegia) eta epistemologian (jakintza eraikitze moduz eta jakintzaren egiazkotasunaz duen ikuspegia) dituzten postulatuak hartu dira irizpide gisa. Oroz gain, Alexander Wendt-ek prestatutako mapa nabarmentzen da¹³⁶, Kepa Sodupe¹³⁷ jaso eta egokitu duena; hori hartuko dugu aintzat hemendik aurrera. Sailkapenak mota ontologikoko bi ardatz ditu oinarrian, eta ardatz bakoitzak bi eztabaida mota ditu: agente-egitura aukerari buruzkoa eta indibidualismo-holismo auziari buruzkoa. Ardatz ontologiko horiek gurutzatzen direnean, lau jarrera teoriko handi agertzen zaizkigu. Hala ere, horiek mota epistemologikoko beste ardatz batekin osatu behar dira. Ikus ditzagun ardatz horietako bakoitzak dituen edukia eta esanahia.

Lehen ardatza *materialismoa/idealismoa* kontrajartzeari dagokio, jarreraren desberdinak baitituzte, errealitate soziala gehienbat zerk eratzen duen erabakitzerakoan. Materialismoaren ustez, gizartearen eraketan in-

¹³⁶ WENDT, Alexander (1999), *Social Theory of International Politics*, Cambridge University Press, Cambridge, 23. or.

¹³⁷ SODUPE, Kepa (2003), *La teoría de las Relaciones...*, *op. cit.*, 62.-71. or.

dar materialek dute garrantzi handiena (ideiak badaude, baina bigarren mailakoak dira), besteak beste, botereak eta interesak. Indar material horiek ematen diote indar handiagoa edo txikiagoa parte-hartzaile bakoitzari, haiek ematen dute aukera munduaren gainean kontrola izateko, jarrera ol-darkorrak bultzatzeko, eta abarrerako. Aitzitik, idealisten iritziz, gizartea eratzeke elementu nagusiak printzipio, arau eta instituzioen gainean egituratutako kontzientzia sozialaren egitura eta izaera dira gehienbat. Egitura horrek identitateak eta interesak sortzen ditu, lagungarria da parte-hartzaileen artean lankidetzara egon dadin arazo komunak konpontzeko, haien artean izango den jokaerari begira dauden aukerak zehazten ditu, etab.

Bigarren ardatza *agente/egitura* arteko harremanari dagokio, hau da, zer zeregin betetzen duen bakoitzak bizitza sozialean; eta horrek bi jarrera ditu ondorio. *Indibidualismoaren* ustez, azalpen zientifikoei indibiduen ezaugarriak eta interakzioak izan beharko lituzkete ardatz, azken batean. Onartzen dute egiturek eragina dutela agenteengan, baina soilik haien jokaeran. Aitzitik, *holismoaren* iritziz, egiturek agenteengan dituzten ondorioak sakonagoak dira, haien jokaeran eragina izateaz gain, laguntza ematen baitute haien ezaugarri eratzaileak finkatzeko —hau da, haien identitateak eta interesak—. Horrela, bada, indibidualismoari jarraiki, nazioarteko gizartea behetik gora eraikitzen da, eta holismoaren arabera, al-diz, goitik behera¹³⁸.

Diziplinaren mapa ontologikoa, *laugarren estabaidan*

	Materialismoa	Idealismoa
Holismoa	Munduko Sistemaren Teoria [Estrukturalismoa]	Eskola Ingelesa Konstruktibismoa Teoria Kritikoak Feminismoa Postmodernismoa
Indibidualismoa	Neorrealismoa Errealismo Tradizionala Neoliberalismoa	Liberalismoa

Iturria: SODUPE, Kepa (2003), *La teoría de las Relaciones Internacionales a comienzos del siglo XXI*, UPV/EHU, Bilbo, 66. or. Hemendik egokitua: WENDT, Alexander (1999), *Social Theory of International Politics*, Cambridge University Press, Cambridge, 32. or.

Aldameneko koadroan agertzen denez, bi ardatzak bateratzeak aukera ematen digu diziplinaren jokaeren sailkapena egiteko, irizpide onto-

¹³⁸ *Ibidem*, 64.-65. or.

logikoetan oinarrituta. Bistan denez, sailkapen hori egiteko, ezinbestez bakundu behar da, korronte bakoitza heterogeneoa baita, eta hainbat ñabardura eta aldaera baititu, batzuk beste joera batzuetatik hurbil daudenak gainera. Sailkapen horretan, lau jarrera handi edo koadrante daude.

Behe ezkerreko koadrantean, izaera materialista eta indibidualista duten ikuspegiak daude, diziplinaren mainstream edo korronte nagusiak, molde arrazionalistakoa (epistemologia positibistaz). a) *Errealismo klasikoaren* ustez, interes nazionala giza izaeraren ondorioa da, ez nazioarteko sistemaren ondorioa; beraz, azalpena guztiz indibidualista da. Haren materialismoaren indarra askotarikoa da, baina baliabide materialen garrantzia nabarmendu ohi dute. b) *Neorrealismoak* aurrekoak baino azalpen-botere handiagoa ematen die faktore materialei eta, orobat, sistemaren egiturari (goi ezkerreko koadrantera hurbilduz); baina, haren ustez, egiturak joera ez du arautzen, ez du identitaterik eraikitzen, eta, beraz, gehienek estatuen identitateak emantzat jotzen dituzte. c) *Neoliberalismoa* ere indibidualista da, egituraren kontzeptuari dagokionez; bestetik, materialismoan dago sartuta, sistemaren oinarri materiala botereak eta interesak eratzen dutela uste duelako; hala ere, aski paper autonomoa ematen diote gainegitura instituzionalari —errealisten kontrara—, eta oinarriak, arauak eta erregelak ere hartzen ditu aintzat, jokabideak azaltzeko faktore gisa (behe eskuineko koadrantera hurbilduz)¹³⁹.

Goi ezkerreko koadrantean, jarrera holistik (egiturek eratzen dituzte, neurri handi batean, estatuen propietateak) eta materialistak (indar materialek mugatzen dituzte egiturak) daude bilduta. Funtsean, *Mundu Sistemaren Teoria* da¹⁴⁰, egiturek izaera eratzaila dutela uste duelako, eta, aldi berean, materialista delako, egiturak ekoizpen-harremanek mugatzen dituztela uste baitu. Alderdi batzuetan behintzat, *orientabide gramsciarreko Teoria Kritikoa* eta *neorrealismoko* egile batzuk ere koadrante horretan sar litezke¹⁴¹.

Behe eskuineko koadrantean, ikuspegi indibidualistak eta idealistak daude jasota. Ikuspegi horien arabera, estatuen identitateak eta interesak ez ditu nazioarteko egiturak eraikitzen; gehienbat barneko egiturek eraikitzen dute. Aldi berean, nazioarteko egituraren eraketan, garrantzi handiagoa ematen diete alderdi sozialei materialei baino. Hain zuzen, *liberalismoa* da; haren ustez, gehienbat barneko faktoreak dira estatuaren interesak eratzen dituztenak. Dena dela, *neoliberalismoa* ere ondo sar liteke koadrante horretan.

¹³⁹ *Ibidem*, 66. or.

¹⁴⁰ Sodupek ez du sailkapen honetan barneratu, baina dependenziaren teoria ere sar liteke, lehen aipatu dugun korronte estrukturalista.

¹⁴¹ *Ibidem*, 66. eta 67. or.

drantearen alde horretan, zehazki, estatuen arteko harremanen inguruko aukerak nabarmentzen baditu, boterearen eta interesaren kaltetan, nahiz eta azken horiek nagusitzen direla iruditu.

Azkenik, goi eskuinaldeko koadrantean, korronte idealistak eta holistikak daude. Haien arabera, nazioarteko egitura ideiek osatzen dute, estatuen jokaeran eta, orobat, haien identitateetan eta interesetan eragina duten ideiek. Defendatzen dutena ez da egiturek agenteek baino lehentasun handiagoa dutenik (*mainstreamak* ez bezala), baizik eta bien elkarrekiko izaera eratzaila. Ikuspegi multzoa izugarri heterogeneoa da. Sodupe *erreflektibista* izenaren barruan joera postpositibistak eta kritiko moderatutzat har ditzakegun beste joera batzuk ere elkartzen ditu. a) *Eskola Ingelesa*, lehen era estatuzentrikokoa zena, korronte erreflektibistetara hurbildu da *laugarren eztabaidan*, nazioarteko sistema-arauek gidatutako gizarte bat dela onartzean. b) *Konstruktibismoa*, idealismo moderatua duena bereizgarri, baina indar materialei lekua utzita. c) Teoria Kritikoa (argi eta garbi, sustrai habermasiarreko aldaera, eta hein handi batean aldaera neogramsciarra), ezarritako ordena zalantzan jartzen duena. d) *Feminismoa*, genero-kategoria diziplina sartu zuena. e) *Postmodernismoa* (edo *postestrukturalismoa*), idealista erradikala, eta materialismoari eta arrazionalismoari kritika zorrotza egiten diena¹⁴².

Honaino marraztu dugun sailkapena irizpide ontologikoen arabera egin da. Hala ere, lehen adierazi dugunez, *laugarren eztabaidako* ikami-kek auzi epistemologikoak ere ukitzen dituzte, hain zuzen, ikuspegi postpositibistek eta, zentzu zabalagoan, erreflektibistek diziplinako korronte tradizionalen positibismoa arbuiatzen duten neurrian.

NHen gaur egungo *laugarren eztabaidan* parte hartzen duten korronte multzo osoaren mapa ikusita, jarraian, joera postpositibista bakoitzaren ezaugarriak azalduko ditugu: konstruktibismoa, Teoria Kritikoa, postestrukturalismoa (edo postmodernismoa), ikuspegi postkolonialak, feminismoa eta teoria berdea.

¹⁴² *Ibidem*, 67. or. Esan behar da sailkapen horrek ez dituela bi korronte postpositibista behintzat barnean hartzen; hain zuzen, ikuspegi postkoloniala eta teoria berdea.